

"Va usted normalmente a Misa"

GEHIENETAN BA AL ZOAZ MEZATARA?

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Sencillas reflexiones en torno a una pregunta muy simple:

"Va usted ordinariamente a misa?", planteada por el diario EGIN dentro de una encuesta más amplia.

El estudio de las respuestas que se recojan tiene ya su interés sociológico. Pero la sencilla pregunta formulada de modo frío, viene a ser una interpelación íntima y personal sobre la actitud propia respecto de esa expresión de la fe y vivencia cristiana, que es la misa.

Orain hilabete EGIN egunkariak galdera sail bat jarri zien bere irakurleei. Hauek zein pentsakera eta jokabide duten eta egunkariari zer kritikatzten eta eskatzten dioten, jakin nahi du egunkariak.

Nik neuk neure erantzuna eman dut. HERRI-2000-ELIZA irakurtzen duen hainbatek ere emana izango du berea.

Hamabi-hamabost bat galdera ziren denetara. Batzu luze eta konplezu samarrak. Guztien artean bat zegoen, motza eta erraza: "Va Usted normalmente a Misa"? galdetzen zuen, besterik gabe. Erliziozko jokabideari buruz galdera bakarra zen.

Bakarra izanik, eta denen erdian zegoelako, irakurlea ustekabean hartu zuen seguruenik. Ni behintzat bai. Eta seguruenik erantzule asko harrituta galditu da: "Galdera kaskar horren bidez argituko ote dute erlijiozko nere jokabide osoa"? Eta agian batek baino gahiagok erantzunik ez emateko gogoia izan du.

Nik neure erantzuna emen nuen. Bai ala ez, erantzun behar zen. Eta nik baiezkoa jarri nuen. Ez dakit zer aterako den galdeketak horretatik. Seguruenik, EGINen irakurle gehienak gehienetan ez dira mezatara joango. Hori soziologoaren arazoa da; eta beraiek ikusiko dute zein ondorio ateratzen duten, erantzun guztiak azter-

tu ondoren. Baina, bestalde, ustekabeko galdera horrek neure jokabidea sakontzera eramaten nau: zergatik joaten nahiz edo ez naiz joaten gahienetan mezatara? zer esan nahi du neure kristau bizitzan gehienetan mezatara joateak nahiz ez joateak?

SOZIOLOGOEN GALDERA HOTZA

Galdera inpersonalak egiten dituzte soziologoek, nahiz eta pertsona bakoitzari bere erantzuna eskatu. Eta gehienetan erantzun anonimoak eskatzen dituzte: izen propioak ez zaizkie axola.

Zenbakien eta ehunekoaren koordinatuena barnera bildu nahi dituzte erantzun guztiak; horretarako kodigo artifizialez itzultzen dituzte erantzunak, ordenadoreen kalkulua automatikoei eskaintzeko; eta konbinazio konplexuak eginez, ondorio estatistiko globalak nahiz xaheak ateratzen dituzte. Estatistikaren eskema eta sailkapen hotzak!

Jokabide sozialak erakusten dituzte soziologoak: generalek nahiz xaheak edo konkretuak; baina anonimoak, beti inpersonalak. Eta hortxe daukate beren balio eta erabilgarritasuna, hain zuzen ere.

EGIN irakurtzen dutenak mezatara joaten dira ala ez gahienetan? Galdeketak erantzungo digu. Baina ez digu hori bakarrik emango; galdera guztien arteko konbinazioen bidez, galdeketak beste datu asko emengo digu agian: HBri, E.E.ri, E.A.J.ri ala beste edozein alderdiri edo koaliziori botoa ematen diotenak: zeintzu joaten dira gehiagotan mezatara? Politikak, kulturak, ekonomiak ala kirolak gehien kaskatzen dituenak: zeintzu doaz gehiago mezatara?



Nik ez dakit honelako datu guztien bila ere ba ote dabiltzan EGINeko galdegi-leak. Baina atera, atera daitezke.

Horregatik, EGINen irakurleen erligiozko jokabideaz kezkatuak dabiltzanak gogoz jakingo lituzkete xehetasun guzti horiek. Batzuk jakinmin hutsez irakurriko dituzte EGINek emango dizkigun datuak; beste batzuk, agian, gehiago sakondu nahiko dituzte horrelako datuak, beren ondorioak atera nahian, eta politikaren, nahiz gizartegintzaren nahiz Eliz pastoraltzaren mailan jokabideak argitzeko eta zuzentzeko. Beste batzu, seguruenik, dstu horietaz baliatuko dira, beren gisara erabiltzeko eta beren interes ideologikoe-tarako edo politikoe-tarako gidatzeko.

Guzti horretarako balio du galdeketa soziologiakoak...

NORBERE GALDERA BEROA

Soziologoaren galdera jaso eta erantzutean, batzutan urrutitik, kanpotik bezala eta era mekanikoz erantzuten da; baina inoiz barne-galdera, norberari zuzenean eta pertsonalki egindako galdera

bezala gertatzen da. Soziologi galdera, kontzientzi galdera bihurtzen da.

Eta orduan galderaren hotza berotasun bihurtzen da; horren azalekotasuna sakontasun bihurtzen da. Eta datutarako, kodigotarako, eskemetarako eta estatistikarako zen galdera soila, motibazioen eta jarrera pertsonalen bila hasten da. Eta kantitatezko koordinatuen barnean sailkatzeko zen erantzun anonimoa, kalitatezko balioen arabera argitu beharrean gertatzen da.

Hau dena abstraktuegia da. Baina EGINen galdera irakurri eta erantzutean, bakoitzak beharbada oso barneko galdera konkretu bezala hartu du formula soil hura: "Va Usted normalmente a misa?"

Neri halaxe gertatu zait. Baina hemengo lerroek ez dute inolako konfesioa izan nahi (ez da horretarako egokiera), ez eta inorentzako eredia ere.

Urtetan herriarentzat eta entzuleen aurrean iganderoko meza eman izan dut, apaiz bezala. Eta meza-emaile eta batzarren gidari bezala goitik eta aurretik hitzegiteak eta otoitzak zuzentzeak ba du bere atsegina. Eta agian bere zentzu teologikoa eta soziologikoa ere bai. Hala ere, apaizaren eta "kristau herriaren" harteko harremana garbitu beharra degoela uste dut. Klerikalismoak kutsatuegia dauka Eliza: baita mezako batzarreko harremanetan ere; beharbada horixe beste inon

baino gehiago. Dena dela, apaiz izateak ematen didan situazio soziala (Elizaren barnean), berrikusi eta berraztertu beharra ikusi dut; horregatik aspalditxo nik ez dut gehienetan meza "ematen"

Meza "ematea" ("esatea") eta meza "entzute" elkarrekin lotuta daude. Sarri xamar igandetan edozein elizatar "meza-entzuleekin" batera joaten naiz. Eta esan beharra daukat, gehienetan jasanezinak gertatzen zaizkidala hango hiru ordu-laurdenak. Beharbada hiru dira arrazoiak: ni neu jarrera kritikoz jartzen naizela; aldarean dabilzanean eta behean daudenen arteko harremana hotzegia eta alde handiegia dela; eta iganderoko mezak sarriegiakin rutinaz beterikoak direla.

Maizagotan elkarte txikiko mezatan parte hartzen dut. Askoz egokiagoa iruditzen zait. Hala ere, elitismoan eta aristokratismoan eror daitekeela uste dut. Arrisku honetatik oinarriko kristau elkar-teek ihesegin beharra daukate.

Eliz egiturek (eta bereziki mezakoan nabarmendu behar dutenek) klerikalismoa uxatu eta hautsi behar dute. Klerikalismo horren kidekoa da gure elizetan bizi dugun populismoa ere; populismoa, ordea, benetako batzarren kontrakoa da. Eliz-batzarra klerikalismoak kutsatzen eta desitxuratzen duenean, populismoa hutsa dabil.

Hala ere, gehienetan ni mezatar "joaten" naiz. Eliz batzarren agerkari izan behar duelakoan

LIDER
PERMANENTE
DE
EXPORTACION

CALIDAD EN EUROPA



1970
1971
1972
1973
1974
1975
1976
1977...